

- **Funtsezko baliabideak**

Proiektua gauzatzeko, beharrezkoa da autobus-konpainia egoki batekin lan egitea, autobusak egoera onean egon daitezen eta bidaiarien segurtasuna eta erosotasuna bermatu daitezen. Gidari profesional eta arduratsuak izatea ere ezinbestekoa da, eta horren ardura autobus-konpainiak izango du.

Aplikazioa garatzeko, teknologia egokia behar da, software tresnak, programazio taldea eta plataforma digitalak barne. Ordainketa sistema segurua ere beharrezkoa da, erabiltzaileek erraz eta fidagarritasunez ordain dezaten. Horrez gain, komunikazioa eta marketinerako baliabideak, hala nola sare sozialak, publizitate tresnak eta Interneteko konexioa, ezinbestekoak dira zerbitzua ezagutarazteko eta gazteengana iristeko.